



Zoriontasuna

Irurtzunek Nafarroako Herrien Arteko Pilota Txapelketa irabazi du, lehenengoz / 12

NAFARROAKO EUSKAL PILOTA FEDERAZIOA

**Gobernuarekin
haserre Bermatutako
Errenta eskaerak
ebazteko epea
bikoiztu duelako** / 5

**Iturmendin eta
Irurtzunen festa
betean daude; 24an,
Bakaikun eta Olaztin
hasiko dira** / 6-9

**Olatz Azazeta
Pelaezek Goierriko Bi
Handiak ultra irabazi
du nagusitasun
handiz** / 12

**Sakanako festa ia
gehienak girotzen
ari dira Boletus
Rumberus DJ
ziordiardiarak** / 15

SINADURAK



OLAZTIKO
MAISUJENEA
GAZTETXEA / 4



ANE ZELAIA RUIZ
DE EGINO / 4



ZIORDIKO
LIBURUTEGIA /
11

"Guretakeo gazta berrikuntza motor singulararra da"

LUISA VILLEGAS DOMINGUEZ GAZTAREN INSTITUTUKO ZUZENDARIA

Irurtzundarrak duela zazpi urte da espezializatutako aholkularitzako zuzendaria. Lanak munduan barna lan egitera eraman du

A.A.I. IRURTZUN

Mundua bezain borobilak dira gaztak. Aurrena lantoki eta hurrena lanbide ditu Luisa Villegas Dominguez Gaztaren Institutuan. Donostian egoitza duen aholkularitzak esne gordina eta gaztaren arloan berrikuntza sustatzen du.

Hasteko eta behin, zer da Gaztaren Institutua?

Gazta Institutua nazioarteko aholkularitza bat da, gazten eta esnekien balio kate osoan lanean aritzen dena. Abeltzaintzako produkzioetan, teknologia prozesuetan, nazioko merkaturatzeetan eta esportazio sareetan adituak gara. Gurekin lanean aritzen diren adituen sarea oso anitza da: albaitariak, elikagaientako teknologoak, giza medikuntzan dabiltzanak, zientzia aurre-ratuan aritzen direnak, beste kontinente batzuetako inportatzaileak...

Gaztaren Institutua, esne gordin eta gaztaren prozesu teknologiko eta zientifikoetan, ekoizpen primarioko sistemetan eta posizionamendu estrategikoan erabat espezializatutako aholkularitza

gara. Enpresa pribatu edota sektore publikoan irtenbide praktikoak eskaintzen ditugu, gure proposamenetan ikuspegi zientifikoa, formulazio ekonomiko berriak eta berrikuntza soziala txertatuz.

Zer helbururekin sortu zen?

Ikuspegi profesional konplexu eta berritzaile horri esker, erreferente eta ahots baimendua izan nahi genuen, esne sektoreko enpresaburuei, beren hainbat prozesuetan, merkaturatze prozesuak barne, izan ditzaketen kezka eta hobetzeko asmoei erantzun bat eman ahal izateko.

Eta hori egiteko zein arlotan aritzen zarete?

Gazta Institutuak hiru arlo estrategikotan lan egiten du: Zientzia eta Teknologia, Posizionamendua eta Cheese Business Factory deitzen duguna. Aurrenak, zientzia arloak, esnekiak ekoizten edo merkaturatzen dituzten enpresendako balio erantsi zuzena sortzeko beharrari erantzuten dio. proiektu publiko eta pribatu ugaritan lan egiten dugu, beti ekoizpen kate osoko erakunde estrategikoekin lanki-

detzan, bai estatu mailan bai nazioartean.

Hurrengoan, posizionamendu arloan, bezero bakoitzaren behar eta eskakizunetan oinarritutako aholkularitza proiektu zehatzak (ad-hoc) garatzen ditugu, gainontzekoengandik nabarmentzeko helburuarekin. Besteak beste, enpresa gastronomikoak, esneki banatzaileak eta abar.

Esparru askotan eskaintzen dugu aholkularitza espezializatua: produktuen paketatzean edo enbalatzean eta mantenuan, prozesu teknologikoen hobekuntza nahiz berrikuntzan, prestakuntzan eta promozioan.

Azken urteotan, esate baterako, hobetu beharreko elaborazioetan arazo puntualak dituzten enpresendako lan egin dugu, osagai bereziak dituen gazta eskusibo bat sortu dugu, gaztandegien hazkunde ekonomikoari lagundu diogu. Espezializazio profesionaleko kanalen bidez, Espainiako enpresa garrantzitsuenetako 500 profesional baino gehiago eta 14 herrialdetako aditu asko trebatu ditugu Donostiatik online lan egiteari esker.

Cheese Business Factory, Gaztaren Institutuak bere baitan sortutako espazioak, esne gordinaren eta gaztaren esparruan egitasmo berritzaileak sortzea eta sustatzea du helburu. Interpretazio holistikoa behar duten proiektu bereziak dira. Ere mu honetan, Spiren bidez (Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia), Eusko Jaurlaritzari esker, proiektu aitzindari bat garatu dugu Paraguan.

Zer lan egiten duzue zehazki?

Enpresa bakoitzaren balorazioa egiten dugu, eta teknikaririk onenak hautatzen ditugu beharrezko garapenerako. Ahalegin berezia egiten dugu, halaber, finantzaketa publikoko proiektu zientifiko eta berritzaileak garatzeko, gure prestakuntza oso zientifikoa baita eta Gazta Institutuan kudeaketa zientifiko espezializatua baitugu. Zientzia eta analisi sentsorialeko taldean 30 urte baino gehiagoko esperientzia duten profesionalak ditugu.

Hori nola egiten da, proiektuak eginez?

Hainbat bezerorekin harreman guztiz pertsonalizatua sortuz lan egiten dugu, haien beharrak ulertu eta irtenbide egokienak eskaintzeko aukera emanez. Ere mu horretan, irtenbideak eta erantzunak ezin dira orokortu, bezero bakoitzaren berezko ezaugarriak eta haien kokapena asko aldatzen baitira. Murtzian ahuntzak dituen gaztandegi batekin lan egitea ez da Gipuzkoako enpresa gastronomiko edo denda espezializatu batekin lan egitea bezala. World Cheese Awards, munduko gazta lehiaketa entzutetsuenaren Espainiako idazkari teknikoak gara. Aurten Suitzan egingo dugu lan. Paraleloan beste hautagaizta batzuekin lanean ari gara 2026. urtean Ovie-

"PROIEKTU UGARITAN LAN EGITEN DUGU, BETI EKOIZPEN KATE OSOKO ERAKUNDE ESTRATEGIKOEKIN"

doko esperientzia beste hiri batean errepikatzeko asmoz. Abuztuan, Perura joango gara bertan III. Gaztaren Amerika Kopa ospatuko baita, eta guk analisi sentsorialaren araudia ezartzen lagunduko diegu.

Esne gordinarekin, gaztaz aparte jogurtak, mamiak, kroketak, postreak eta abar ere egin daitezke. Hori guztia ere kontuan duzue?

Balio kate osoa hartzen dugu kontuan, esnekien azken prozesamendua barne. Horren barruan sartzen dira esnea lehengai gisa erabiltzen duten deribatu guztiak: jogurta, mamia, gurina eta abar. Kroketa espezialitate gastronomikoa dira, guk taldean ez dugu errezetak egiteko espezialistarik baina sukaldariei esnekiak erabiltzen laguntzen diegu, gure zientzia ikuspuntutik errezeta osasungarriak sortu ditzaten, gastronomia osasungarria asko interesatzen zaigu. Esate baterako, probiotikodun esne postre bat sortu dugu, irensteko arazoak dituzten adinekoendako, horretarako latxa ardi esnea erabili dugu. Denda oso espezializatuekin ere lanean ari gara, bai ekoizleen kontaktuekin nahiz tipologiaren aukeraketarekin. Ez da ahaztu behar gaztaren negozio bolumena, oro har, %300 hazi dela.

Zientziaren garapenetik aurrera egitea uler dezaket. Baina garapen sozialean nola eragin daiteke?

Balio erantsi handiko elikagaien ekoizpena asko ari da hazten, eta, zalantzarik gabe, landa ingurunean gero eta pertsona kualifikatuagoak daude. Elikagai ultra-prozesatuen eta azukre nahiz koipe kontzentrazio handien kontra borrokatzea, lan aukera indartsua izango da etorkizunean. Gizarte ekonomiak ere badu eragina gaztagintza eta esne enpreetan, batez ere eredu kooperatibetan. Europa hegoaldean eta Latinoamerikan oso zabaldua dagoen eredu da, eta Eredu Ekonomikoetan adituak dira. Orain, Adimen Artifiziala ezartzeko teknikariekin ari gara lanean, energia gastua murrizteko helburuarekin. Joan zen urteko



**TALLERES
GOÑI
TAILERRAK**





- Ibilgailu guztien txapa konponketa eta margoketa
- Bankadako lanak
- Barruko eta kanpoko garbiketa

Akaborro II industrialdea • IRURTZUN

680 859 938 • 948 500 166 • chapigo@gmail.com



Luisa Villegas Dominguez Munduko Gazta Txapelketan, Fiturren eta bulego lanean. UTZITAKOA



azaroan, gizarte ekonomiari buruzko biltzar batean parte hartzeko aukera izan genuen Donostian. Oso lan eremu zabala da.

Zein dira bezeroak?

Gure bezeroak hainbat kategoriatan sailkatzen dira. Besteak beste, ekoizleak, abeltzainak, ostalaritza eta banaketa erakundeak, espezialitate dendak, prestakuntza eskolak edo erakunde publikoak ditugu.

Bertakoak edo atzerrikoak?

Gure bezero zerrenda globala eta lokala da, "GLOKAL" a.

Zenbatek osatzen duzue lantaldea?

Gaur egun sei pertsona inguru ditugu Donostian. Hala ere, lanean ari garen proiektu desberdinen arabera, jende gehiago batzen da gure taldera eta beste bazkide osagarri batzuekin lankidetzan aritzen gara. 45 pertsona arteko proiektuetan lan egin dugu. Sare profesionalak hamalau herrialdetan dihardu, eta 150 profesional baino gehiago ditu sarean eskuragarri. Azken berrikuntzak izan dira aditu talde bat sortzea abeltzain taldeei aholku emateko. Talde horiek gazta eta beste esneki batzuk egingo dituzte dato-

zen urteetan. Amerikar kontinentean arraza bereziekin eta Espainian behi abeltzainekin.

Zein profil dute lantaldeko kideek?

Teknologian, zientzian, finantzaketan, komunikazio sareetan eta irudian adituak diren talde anitza gara.

Norekin lan egiten duzue?

Normalean teknologia zentroekin eta unibertsitateekin aritzen gara. Esne eta gaztaren esparruan adituak diren nazioarteko teknikariek lankidetz handia da.

Zer eskaintzen duzue?

Bezero bakoitzarendako irtenbide espezifikoak eskaintzen ditugu. Aurretik aipatu bezala, gure zerbitzuak oso anitzak dira eta balio kate osoa hartzen dute kontuan.

Gaztaz inguratuta lan egiten duzu.

Baina zuretzako zer da gazta?

Guretzako gazta berrikuntza motor singularra da, eta esne gordina eskualde geografiko baten biodibertsitate enbaxadorea da. Biak ala biak, ekonomikoki jasagarria izango den etorkizuneko gizarte kontsumitzaile baten mesedetan.

Gazta on bat lortzeko zer behar da?

Kalitate handiko esnea eta gaztagintzako ezagutzak beharrezkoak dira.

Bukatzeko, bakarren bat gomendatuko zeniguke?

Esnekiak gure osasunerako oso beharrezkoak diren eta elikagai ultraprosesatueta ez dauden probiotiko eta bitaminen iturri garrantzitsua dira. Beraz, nire gomendio nagusia egunero gazta jatea eta esnea ez ordezkatzeta da. Gazta ezberdinak bilatu beste kultura batzuk ulertzeko eta gureak balioesteko.

Familiak Atsedeen hartzeko zentroa

ASTEBURU ETA JAI EGUNETAN

Narriadura kognitiboa izan edo ez duten adinekoen zaintzan ari diren familiei zuzendutako laguntza.



**PREZIOA: 50€ eguna
350€ hilabete osoa**
(larunbata/igandea)

INSKRIPZIOAK: 948 563850
ORDUA: 10:00etatik 18:00etara.
Deskontuak hilabete osoa kontratatzen bada





ASTEKOA

ANE ZELAIA RUIZ DE EGINO

Tradizioa?

"Tradizio" hitzak badu guregan eragin berezi eta esanguratsua. Askotan, haren bidez gauzak justifikatu edo baztertu nahi izaten ditugu, gure alde edo kontra baliatuz, diskurtsoaren arabera. Hitza entzutean, zerbait sakratu, ukiezin eta zalantzan jartzea ezinezkoa balitz bezala sartzen zaigu barrenera, "klasikoaren" sinonimo izango balitz bezala.

Ezinezkoa da sufrimendua justifikatzea entretenimenduaren izenean, are gutxiago alternatiba kultural ugari indarkeriarik gabe eskaintzen dutenean benetako gozamen eta parte-hartzea. Izan ere, zezenketek biolentzia ikuskizun bihurtzen dute, eta ondorioz, jendartean normalizatu egiten da: minaren gainean eraikitako festa bihurtzen da, ikusleen txalo artean.

Askok esaten dute "tradizioa" dela eta ez dela ukitu behar, bestela galdu egingo dela. Baina horixe da hain justu gakoa: tradizioek ez dute bizirauten gelditu egonda, baizik eta garaiei egokituz. Eguneratzea ez da traizioa, baizik eta bizirik mantentzeko modu bat. Jaiak eta ohiturak aldatuz joan dira historian zehar, eta horri esker iritsi dira gaur egunera.

"TRADIZIOEK EZ DUTE BIZIRAUTEN GELDI EGONDA, BAIZIK ETA GARAIEI EGOKITUZ"

Horregatik, ezin da tradizioa aitzakiatzat erabili aldaketarik ez egiteko. Galdera bat egin behar diogu geure buruari: tradizioaren izenean onartu behar al dugu animalia baten sufrimendua?

Sokamuturra berreskuratu nahi dutela irakurri dut azken

aldian. Herrietako zezen festek parte hartzeko modu anitzak eskaintzen dituztela argudiatzen dute. Ea noiz ulertzen dugun indarkeriaren gainean eraikitakoa ezin dela normaltasun bihurtu.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteartea 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Gaztetxeak eta musika

OLAZTIKO MAISUENEA GAZTETXEA

Gure gaztetxeen aktibismoa ez litzateke ulertuko kulturaren euskarrietako bat gabe: musika. Musika ez da soilik doinu bat; ahotsa da, mezua da, borroka da. Haren bidez, hainbat kolektibo eta kausa defendatzen dira, eta bere leterek gure kezka eta ametsak islatzen dituzte. Abestiek sarritan gaztetxeen idealen eta printzipioen oihartzuna dakarte, eta gure borrokek, denon artean partekatzen dugun melodia propioa dute.

Pentsa al genezake gure jarduerak txarangarik, bertsolaririk, trikitilaririk, kantautorerik edo musika talderik gabe? Imajinatzen al dugu gure espazioak oi, rap, reggae, punk, rock, tekno, ska edo metalaren soinuak gabe? Zer izango lirateke azken 30 urteetako (eta aurrekoetako) jaiak doinu horiek gabe? Gure

borroka sozialek musika dute lagun eta indar, eta gaztetxeok zorra dugu kultur forma horrekin.

Ez dira gutxi izan gaztetxeen bidez beren lehen agertokia aurkitu duten taldeak, musika industri neokapitalistaren menpe egon gabe beren lehenengo entzuleekin konektatzeko aukera izan dutenak. Guk eskaintzen dugun espazioari esker, askok abiatu dute beren bidea, eta, aldi berean, gu ere elikatu egin gara esperientzia horietatik. Artistari aukera emateaz gain, gaztetxeok kultura-egutegi sendoak osatzen ditugu, gure komunitateak indartu eta gure herriaren nortasuna elikatzeke.

Gure oholtzak eta argiak haiekin partekatzen ditugu; gure jendea eta sare sozialak, gure ate irekia eta mahaiko eserlekua. Eta hori guztia ez dugu bakarka egiten, baizik

eta sare batean: gaztetxeak elkarrekin, eskuz esku, komunitateari bizitza ematen.

Jakina da, batzuetan, artistak haien bidea jarraitzen dutela eta guk ez dugula beti haiek kontratatzeke baliabiderik. Baina interes orokorra lehenetsita, gaztetxeok jarraitu egin behar dugu kultura eta sorkuntza sustatzen, beti harreman duinen eta elkarlanaren ikuspegitik.

Uste dugu harreman hauek adiskidetasunetik eta elkartasunetik eraiki behar ditugula. Guk haiekiko konpromiso iraunkorra sentitzen dugu, eta nahiko genuke haiek ere gurekin antzeko lotura izatea, zirkulua elkarrekin itxeko.

Eta amaitzeko, funtsezkoa dena: eskerrik asko musika kulturari eta hori posible egiten duten guztioi. Mila esker!



OBJEKTIBOTIK

Eguzki eta hontza zoriontsuak

Mikel Lasartek sanferminetan motozerrarekin irudikatutako eguzkiak irribarre egiten du. Nola ez da pozik egongo, berari eta alboan serioago dagoen hontzari esker Lasartek San Fermin Motozerra txapela jantzi baitzuen... Urtetik urtera, bizi gehiago dute irudiok.



UTZITAKOIA

www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245
Itziar Gastearena Colmenero
publizitatea@guaixe.eus
619 821 436

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus
GK diseinu zerbitzua:
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
Maider Perkaz Urdiain
maider@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Pabli Flores

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Sakandarrak bilkura batean. ARTXIBOA

Ahulenak are okerrago utzi ditu gobernuak

Bermatutako Errenta eskaerak ebazteko epea hiru hilabetetik seira luzatu du Nafarroako Gobernuak. Horretarako barne antolaketa arazoak argudiatu ditu. Sakanako Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak erabakiaren kontra daude

SAKANA

Ibarrean hiru Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitate daude: Irurtzun, Etxarri Aranz eta Altsasu aldekoak. Hiru erakundek salatu dutenez, Eskubide Sozialak, Ekonomia Soziala eta Enplegua Departamentuak Ekainaren 4ko 1031/2025 Ebazpenaren bidez Bermatutako Errenta ebazteko epea luzatu du. "Errenta Bermatua ebazteko legeko epea hiru hilabetetik seira luzatu dute. Eta eman duten arrazoi bakarra da departamentuaren barne antolaketari dagozkionak. Erabaki horren kontra gaude", esan du Juana Jaka Garmendiak, Irurtzun aldeko mankomunitateko gizarte langilea eta koordinatzailea, eta autonomia sustatzeko eta menperotasun egoeran dauden pertsonen arreta programaren arduraduna.

Jakak azaldu duenez, "aldaketa horrek zuzenean urratzen du gure gizartean egoera ahulenean dauden pertsonen bizirik irau-

teko duten oinarritzko eskubidea. Legezko epea, orain arte isiltasun positiboko hiru hilabetekoa zena, bikoiztu egin da arbitrarioki, kontuan hartu gabe horrek benetako eragina duela egoera zaurgarrian dauden ehunka familiarengan".

Gizarte langileak gaineratu duenez, "prestazio horien ebazpena atzeratzeak erabateko babesgabetasun egoeran uzten ditu elikadura, etxebizitzaren ordainketa edo oinarritzko hornidurak bezalako oinarritzko premiak asetzeko diru sarrera nahikorik ez dutenak". Departamentuak hartutako erabakiaren inguruko beste ondorio bat ere atera du gizarte langileak: "horrek esan nahi du asistentzia eta ekonomia gaitasuna dagoela, eta horrek arriskuan jartzen duela tokiko baliabideen iraunkortasuna".

Sakanako gizarte zerbitzueta-ko langileen iritziz, "onartezina da larritasun hori duen neurri bat departamentuaren beraren funtzionamendua barrutik be-

rrantolatze behar bakarrak justifikatzea. Pertsona ahulenak ezin dira izan administrazio edo plangintza akatsen prezioa ordaintzen dutenak". Horregatik, ibarreko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuek hiru eskaera egin dizkiote departamentuari. Batetik, Bermatutako Errenta ebazteko epearen luzapena berehala baliogabetzea. Bestetik, hiru hilabeteko legeko epera bueltatzea, isiltasun positiboarekin. Eta atzena, Gizarte Eskubideen Departamentuan egiturazko neurriak eta administrazioa indartzeko neurriak hartzea, ondorioak erabiltzaileei eta lehen mailako arretako lan taldeei helarazi gabe. "Eskubide sozialak ezin dira administrazioaren

**SAKANAN
BERMATUTAKO
ERRENTAREN
ONURADUN DIREN 453
PERTSONA DAUDE**

moteltasunaren menpe egon. Duintasunak ez du itxaronaldirik onartzen", laburbildu du Jakak.

Bermatutako Errentaz

Ibarreko hiru Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateetan Bermatutako Errentaren onuradun diren 453 pertsona daude.

Nafarroako babes sozialerako sistemaren Errenta Bermatutako eskubide subjektiboa arautua dago. Oinarritzko beharrei aurre egiteko gaitasun ekonomikorik ez dutenendako prestazio ekonomikoa da. "Soldata sozial" gisa definitu du Jakak prestazioa.

Errenta bermatutako eskubideak erlazio zuzena du familia unitateekin. Eskubidea aitortu ala ez zehazteko departamentuak familia unitateko pertsona guztien baldintzak hartzen ditu kontuan, bai helduak, bai adingabeak.

Prestazioa emateko foru administrazioak lau baldintza hartzen ditu kontuan. Batetik, adina. 18 eta 24 urte arteko emantzipatutako gazteak, baldin eta egoera horretan gutxienez bi urte badaramatzate. Gainontzeko eskatzaileen kasuan bere ardurapean adingabeak izatea kontuan hartuko dute. Bestetik, Nafarroan bizitzen daraman denbora. Eskaera aurkeztu baino bi urte lehenagotik gutxienez bizi behar da herrialdean. Urtebete familian adingabeak, mendekoak edo %65etik gorako desgaitasuna duten pertsonak badaude.

Hirugarren baldintza da gaitasun ekonomiko nahikoa ez izatea da. Hau da, eskatzaileak eta familia unitateak ez du izan behar oinarritzko beharrei aurre egiteko adina baliabide. Hori horrela den jakiteko Eskubide Sozialen Departamentuak azken sei hilabeteetan familia unitateko edozein kide eskuratutako diru sarrerak eta dituzten ondasunak zein diren izanen dituzte kontuan. Azkenik, Errenta Bermatua eskatu aurreko sei hilabeteetan familia unitateko kide guztiek zuzenbidetara jarraituz legezkiekeen prestazioak (langabezia, subsidioa...), sorospenak edo pentsio publiko nahiz pribatuak eskatu behar izan dituzte. Gainera, oro har, eskaeraren unean, enplegu eskatzaile gisa inskribaturik egon behar dute.

Irurtzungo Lizarra kalea udalarena da dagoeneko

San Martin kaleko bidegurutzetik saihasbideko biribilgunera arteko zatia zehazki

IRURTZUN

Nafarroako Gobernuarekin hainbat bilera egin eta prozesu luze baten ondoren, Lizarra kalea Irurtzungo Udalaren jabetza da. Hala jakinarazi zuen Nafarroako Gobernuak ebazpen baten bidez. Irurtzungo Udalak garagartzaroko bilkuran kalearen zesioa onartu zuen eta hura bere izenean jartzeko jabetzaren erregistrora joan zen joan den astean. Lehen NA-7010 errepidea zenaren 450 metro, hau da, Lizarra kalea, orain udalaren jabetzakoa da.

Unai Razkin Iriarte alkateak jakinarazi duenez, "parte hartze prozesu baten bitartez herri erdigunea nola antolatu nahi dugun erabakitzeko asmoa dugu". Razkinek aurreratu duenez, "parte hartze prozesu hori urte akaberran izanen da. Eta heldu den urtean beharrezkoak diren lanak egitea".

Bestetik, Irurtzungo Udalak eta erraldoien konpartsak lankidetzat hitzarmena sinatu dute. Konpartsak orain arte festetako diru partidatik dirulaguntza jasotzen zuen. Baina aldeek ego-kiago eta zehatzago lotu dute haien arteko lankidetzat hitzarmen baten bidez. Guztira, gehienez, 6.500 euro bideratuko dizkio udalak erraldoien konpartsari.

**BIKAIN
GARAIEA**



**Mekanika
Elektromekanika
Serie 100
pintura prototipoa
Autokarabana eta
furgoneta saila**

948 460 037 Arbizu

FESTAK

IRURTZUN

UZTAILAK 18 ostirala

10:00 Dianak.
11:30 Erraldoi eta buruhandien konpartsa.
14:00 Kalderete lehiaketaren epaia. Oharra: izena ematea
13:00ak arte, plazako arkupeetan.
14:30 Kaldereteak.
17:30 Bazkalostea eta Elektrokelaekin kalejira.
17:30-19:30 Levelibular taldearekin zirku tailerra, Gernika plazan.
18:00 Afizionatuen Esku Pilota Jaialdia.
19:00 Karaokea, Barazkigunek

antolatuta, Barazkigunen.
20:00 Kresalarekin musika emanaldia.
22:00 Larrain dantza.
22:30 Zezensuzkoa, kultur etxetik Gernika plazaraino.
23:30 Kontzertuak, Barazkigunek antolatuta: Amañur 22, Mendeku, Bulkada eta DJ Boletus Rumberus.
00:30 Kresalarekin musika emanaldia. Ondoren, DJ Oixani.

UZTAILAK 19 larunbata

10:00 Dianak.
12:00 *Marietako* Zirkus Zirika Zirkusen antzerkia euskaraz, Foru plazan.
13:00 Transfugas taldearekin bermut musikala, Foru plazan.
17:00-19:00 Haurrendako parkea,

Gernika plazan.
18:00 Tximista Txaranga, Barazkigunek antolatuta.
18:30 Herri kirolak: Aizkoran: Aitor Saralegi / Ioan Goikoetxea; Malen Barrenetxea / Nerea Arruti; Eneko Saralegi Altueran. Harrijasotzaileak: Sakanako Harri Eskola; Iparraldeko jokoetan: Tubi bustinza. Foru plazan.
21:30 Jauziak.
22:00 Larrain dantza.
22:30 Zezensuzkoa, kultur etxean hasi eta Gernika plazan amaitu.
00:00 Kontzertuak, Barazkigunek antolatuta: Guri Bost, Hilketa eta Lexcrazy.
00:30 Oxabirekin musika emanaldia. Ondoren, DJ Jo Ta Txo.



IRURTZUN Ander Lizarragak jaurti zuen festen hasierako suziria.

ITURMENDI

UZTAILAK 18, ostirala
SANTA MARINA EGUNA

GOIZEAN, dianak txistulariekin.
10:00 Santa Marinara igoerako etxajua
12:00 Meza, Santa Marina ermitan.
13:00 Ardo kikarak herriko trikitilariak girotuta.
15:00 Bazkariak.
18:00 Herrira jaitsierarako etxajua.
19:30 Auzatea, San Pedroaldan eta kalejira trikitilariak.
20:00-22:00 Auzatea ehiztarien eskutik eta Bizphiru Pelau taldearekin dantzaldia.
22:00 Zezensuzkoa.
22:15 Herri afaria, frontoian.
00:00-02:00 Bizphiru Pelau taldearekin dantzaldia.

UZTAILAK 19, larunbata
KALDERETE EGUNA

GOIZEAN, dianak txistulariekin.
GOIZEAN zehar, kaldereteen prestaketa.
12:30 Haurrendako jolasak Biltokiko gurasoen eskutik.
12:30 Duo Amets: Iñaki & May.
13:00 Auzatea.
ARGAZKI erakusketa, auzogelan.
15:00 Kalderete lehiaketa kuadrillak eta moztarotuta.
18:00 Elektrokela elektrotxarangarekin kalejira.
20:00-22:00 Auzatea Sukar taldeak girotuta.
00:00-03:00 Sukar taldearen dantzaldia.

UZTAILAK 20, igandea
JUBILATUEN EGUNA

GOIZEAN, dianak txistulariekin.
12:00 Jubilatuen meza.
13:00 Auzatea jubilatuen eskutik, jotariak girotuta.
ARGAZKI erakusketa, auzogelan.
13:12 Munduko Ping-Pong txapelketa, Gazte Asanbladak antolatuta.
15:00 Herri bazkaria Aitzkoarren eskutik.
18:00 Niala magoa, frontoian.
19:00-22:00 Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.
20:00 Auzatea jubilatuen eskutik.
22:00 Zezensuzkoa.
00:00 Jai bukaerako traka eta Ai hau pena nik!
00:00-02:00 Joselu Anaiak



**BAKAIKUKO
FESTETAKO
GIROA
HEMEN!**

ZATOZ ELKARTERA!

Pintxo goxoak

Bazkariak egunero

(uztailak 20 arteko epea 674 93 86 28an)

Gauetz bokatak eta ordu txikitik pizak

taldearekin dantzaldia.
04:01 Karaokea, Gazte Asanbladak antolatuta, gaztetxean.
09:24 Mañaneoa destroi argazkia, Gazte Asanbladak antolatuta.

ALTSASU
BARGAGAINERA ERROMERIA

UZTAILAK 20 igandea
09:00 Irteera, udaletxetik.
11:00 Hamaiketakoa, Bargagaingo zelaian.
11:30 Urdaiazpikoaren zozketa.
12:00 Zortzikoa.
13:00 Zelaia garbitzea.
13:30 Jaitsiera.

BAKAIKU

UZTAILAK 24 osteguna
13:00 Festen hasierako etxajua. Bakaikuko zortzikoa, bonba japoniarrak eta buruhandiak.
13:30 Auzatea. Txorongo txarangarekin kalejira herrian zehar.
15:00 Etxera bazkaria: paellada. Ondoren, Txorongo txaranga.
19:00 Bezperak.
20:00 Auzatea ehiztarien eskutik eta Txorongo txaranga giroturik. Buruhandiak.
00:30 Kontzertuak: Broken Pick, eta ondoren, Trikidantz.

UZTAILAK 25 ostirala
12:00 Meza ospakizuna.
13:30 Auzatea. Bonba japoniarrak eta buruhandiak.
13:30 Duo Amets (Iñaki&May).
16:00 Txirindularitza.
20:00 Auzate. Bakarkeoetxea elkartearen eskutik.
20:00-22:00 dantzaldia Ilargi taldearekin.
22:00 Zezensuzkoa.
00:30-2:30 dantzaldia Ilargi taldearekin.

OLAZTI
SANTA ANA FESTAK

UZTAILAK 24 osteguna
10:45 Kartel lehiaketako sari banaketa, Gartzia Ximenez plazan (eguraldi txarrarekin udaletxean): 'Miguelito', Ander Gil Amado (15 urtetik aurrera); 'Sentimiento rojillo', Maialen Aldabe San Roma



ITURMENDI Lehenengo aldiz haur iturmendiarrek herriko zapia jaso dute.

(12-14 urte bitartekoak); 'Bizi festa', Maider Galbete Herrero eta Karen Gastaminza Aldasoro (11 urte arte).
11:00 Zapi banaketa 2024. urtean jaiotako haurrei.
11:30 Hamaiketakoa.
12:00 Suziria, udaletxetik. Ondoren, La Cigarra txarangarekin kalejira eta Erraldoiak eta buruhandiak.
EZKILA jotze nagusia.
18:00 Txaplin Tutik Clows konpainiaren antzezlanaren emanaldia, Memoria Historikoaren parkean (eguraldi txarrarekin Eskolako frontoian).
20:00 Kakahueteak, gazta eta ardo banaketa.
20:00-22:00 Muxutruk taldearekin musika.
21:00 Japoniar bonbak, kultur etxetik.
22:00 Zezensuzkoa.

00:30-03:30 Muxutruk taldearekin musika.

UZTAILAK 25 ostirala
12:00 Hamabietakoa San Migel elkartek eskainia.
12:00-14:00 Haur eta gazteendako jolas parkea, Memoria Historikoaren parkean.
13:00 Swingtronics taldearen kontzertua, San Migel plazan (eguraldi txarrarekin Eskolako frontoian).
14:30 Haur bazkaria, Memoria Historikoaren parkean (eguraldi txarrarekin Eskolako frontoian).
15:00 Herri bazkaria, Maisuenea Gazteteak antolatuta, Memoria Historikoaren parkean (eguraldi txarrarekin Eskolako frontoian).
15:30 Haur eta gazteendako jolas parkea.
17:00-19:00 Broken Brothers

Brass Band, Memoria Historikoaren parketik.
19:00 Gala Circense Bambolea konpainiaren ikuskizuna, futbito pistan (eguraldi txarrarekin Erburua kiroldegian).
20:00 Kakahueteak, gazta eta ardo banaketa.
20:00-22:00 Eztitan taldearekin musika.
21:00 Japoniar bonbak, kultur etxetik.
22:00 Zezensuzkoa.
23:00 La Txama eta The Marteens

taldeen kontzertua, futbito pistan (eguraldi txarrarekin Udal frontoian).
00:30-03:30 Eztitan taldearekin musika.

ARAKIL
ARAKIL EGUNA

UZTAILAK 25 ostirala
14:30 Herri bazkaria, Egiarretan.

BUJANDA OGI BERRI

648 661 843
Kale Nagusia 40, behea · Olazti

RESTAURANTE CLINKER
JATETXEA

Ondo pasa festetan!

f i

948 56 23 74 · Nagusia, 3 · Olazti

DISTRIBUCIONES URBASA
EDARI BANATZAILEAK

Ongi pasa festetan!

948 467 783 / 670 318 658
Urbasa etorbidea 25, Olazti
distribucionesurbasa@hotmail.com

A.A.I. BAKAIKU

Festetan gogoko duten rockaz gozatzeko aukera izanen dute, atzera ere, hainbat bakaikuarrek.

Rock zalerik badago Bakaikun?

Belaunaldi batzuetan, behintzat, rocka oso presente egon da. Etxean ez dut rocka ez den beste musikarik entzun. Bost anaia gara, eta bostak rockaren zale amorratuak gara.

Nola partekatzen duzue zaletasuna?

Kuadrillan hitz eginez, talde horrek edo hark ateratako disko berriaz, musika hura entzun ote zuten galdetzen genuen, musika ekipoez aritu... Rocka eta musika ohiko hizketa gai bat gehiago zen kuadrillan. Eta esango nuke herriko gazte guztien artean. Ohikoa zen zintak elkarri pasatzea ondoren norberarendako grabatzeko, Discoplay katalogoa... Kontzertuetara joatearena zailagoa zen. Ibilgailua behar zenuen, eta sarrerak pagatzeko dirua. Donostiako belodromora oso talde onak etortzen ziren 80ko eta 90eko hamarkadetan. Ikaslea izanda, dirurik ez nuen. Ni gehienetara ezin nintzen joan, baina anaia zaharrenak, lanean zeuden, eta joaten ziren kontzertuetara. 12 urte nituela, etxean entzuten nituen taldeen kontzertuetara joaten ziren anaia. Eta kontzertuetara joateko aukera izan nuen, 90ko hamarkada erdialdean, miresten nituen talde asko dagoeneko ez zeuden. Nik ez nuen une goren hori bizi izan.

Zuen artean rockak hizketa gai izaten jarraitzen du?

Jakina. Gainera, gure bizitzan oso presente dago musika. Elkartean bat eginez gero, atzetik musika entzun behar da. Lagunak elkartzeko garen txabola dugu. Bada, txabolari jarri zitzaion lehenengo gauza bozgorailuak eta amplifikadorea izan ziren. Gero bestelakoak jarri genituen.

Nolaz sortu zen rockzale bakaikuarrek biltzeko ideia?

Gure belaunaldiarendako, 70eko hamarkadaren amaieran amaitu zena, musika eta rocka oso garrantzitsuak ziren. Urtetan festetan etortzen ziren plaza taldeek hainbeste gustatzen zitzaizkizun rock kanturen bat jotzen zuten. Joselu Anaiak, Drindots eta halakoez ari naiz. Plazan dantza askorik egiten ez bagenuen ere, garrantzitsua zen plazan musika hori entzutea. Garrantzitsua iruditzen zitzaigun plazako musikak adin guztietara laguntzea, baina baita gurera ere. Musika



2019ko Rock Eguneako saioan parte hartu zuten musikariak. UTZITAKOA

"Kuadrillakoon bizitzetan oso presente dago musika"

DAVID KINTANA URRESTARAZU ROCK EGUNA TALDE ANTOLATZAILEKO KIDEA

Bakaikuko festetako larunbatean Rock Eguna ospatuko dute rockaren zale batzuek. 2016az geroztik urtero ospatzen da, pandemiako bi urteetan izan ezik

mota guztiekin. 2000. hamarkadatik aurrera plaza taldeen musika nahikoa monotonoa bihurtzen hasi zen. Eredu bera zuten talde guztiek: trikitixa. Bost festa egunetan trikitixa, gelditu gabe. 7, 8, 9 urte generamatzen horrela eta "akabo" esan genuen: "festetan kuadrillak tarte bat hartuko du, bazkaria egingen dugu eta nonbaitetik bi bozgorailu handi eta amplifikadore indartsu bat sortuko ditugu eta rocka jarriko dugu, eta plazako musika hori guztia isilaraziko dugu,

rocka ez entzuteaz nazkatuta gaudelako". Trikitixa besterik ez zen entzuten, gure gusturako izugarria zen. Gure belaunaldi osoan hain garrantzitsua izan zen rocka erabat desagertua zen. Amorrurik horretatik sortu zen Rock Eguna.

Nolako izan zen aurreneko edizioa?

Kuadrillako batek 4 x 4 ibilgailuari gurdia lotu zion eta han 200 edo 300 W-ko handi hauen bozgorailu pare bat jarri genituen, amplifikadore batekin eta musika zerrenda bat zuen ordenagai-

lu batekin. Eta gurdi harekin herriari bueltak ematen hasi ginen. Ondoren bazkaria izan genuen. Bazkaltzera Ricardo Areta agertu zen. Bateria ekarri eta kale erdian jarri zuen. Victor Lopezek gitarra elektrikoa piztu zuen, baxua sartu eta kontzertua eskaini zuten. Bazkarian geundenok izugarri gozatu genuen. Gurdiarekin herriari buelta emateaz gauerdian bukatu genuen. Hala egin genuen 2016an eta 2017an.

Zuen kuadrillak antolatzen du?

Hala da, bai. Hirugarren urtean musika talde bat ekartzeko aukera izan zen: Iruñeko 100TO8. Herriari buelta emateko aukera baztertu genuen. Erabateko arrakasta izan zen, izugarri gozatu genuen. Gainera, bazkaria, estreinakoz, eskoletako lorategian egin genuen. Eguzki egun ederra izan genuen. Orduetik eskema horrekin gabiltza: eskoletako lorategian bazkaria eta ondoren kontzertua. Beno, 2019an eguraldi txarra egin zuen eta elizako estalpean egin genuen dena. Taldeak jo beharrean eskualdeko makina bat musikari elkartu genituen eta bakoitza kantu batean bere instrumentua jotzera igo zen. Bi ordu baino gehiago iraun zuen *jam sessiona* izan zen. Zoragarri izan zen. Halakoak muntatu ondoren guztia zegoen bezala gelditzen da, txukun-txukun.

Asko elkartzeko zarete?

Bazkaltzera 55en bat. Jotzen duen taldeko kideak bazkaltzera gonbidatzen ditugu. Etxarritik eta Iturmenditik ere etortzen dira. Gainera, urtero errepikatzen dute. Beraz, zerbait ongi egiten ariko gara.

Hizketa gaia, rocka?

Jakina! Oso giro ona sortzen da. Azken batean da: "bakaikuarra naiz, eta horregatik nire festen parte exijitzen dut!" Zure gozatzeko momentua da. Apika besteren batzuei ere egitea gustatuko litzaieke, esaterako, mexikar doinuekin.

Zein da aurtengo plana?

Hilaren 26an, larunbatean, 14:30ean bazkaltzera eseriko gara. Txartelak Koxko tabernan daude. Ondoren, 17:00etan, Asun Zelaia Etxarri urdindarraren taldeak joko du, Mantis.



"FESTETAN ROCKA ERABAT DESAGERTUA ZEN. AMORRU HORRETATIK SORTU ZEN ROCK EGUNA"



Leire Ayestaran mariatxi olaztiarra. UTZITAKOA

"Olaztiko kontzertua berezia eta oso polita izango da"

LEIRE AYESTARAN MUSIKARIA

Akordeoilari olaztiarra A tope madre mariatxi taldeko kidea da, eta uztailaren 26an Olaztiko festetan kontzertua emanen du

Erkuden Ruiz Barroso OLAZTI

Leire Ayestaran olaztiarraren-dako aurtengo festak bereziak izanen dira: uztailaren 26an, larunbata (23:30ean), A toda madre mariatxi taldearekin "etxean" joko du. Aurretik, uztailaren 25ean, Altsasun ere joko dute. Taldea hasiberria da, aurreko urteko urtarrian jotzen hasi ziren. Zortzi taldekide dira: Javier Andueza eta Maria Anduez abeslariak, Idoia Perez saxofonista, Asdrubal Lahuerta tronpetak, Marta Muñoz biolina, Luis Al-

fonso de Pando baxua, Jokin Donamaria gitarrista eta Leire Ayestaran akordeoilari olaztiarra. Haiekin disfrutatzera gonbidatu ditu olaztiarrak eta sakandarrak. **Nola sartu zinen A toda madre mariatxi taldean?**

"MEXIKAR MUSIKAREN ZALE AMORRATUA NAIZ; AUKERA IZUGARRIA IZAN ZEN"

Mariatxi musika talde bat sortu behar zutela eta akordeoilaria behar zutela mezu bat iritsi zitzaidan, deitu nuen, eta baietz esan nuen. Aukera oso polita da gustuko dudana musika egiteko eta taldekideekin ere oso gustura nago. Sekulako aukera da jendearekin esperientzia hau konpartitzea.

Beste talderen batean egon zara? Horrela kide bat bezala ez. Altsasuko Los del Rayo taldearekin kontzertu sinfonikoren batean jo izan dut bi edo hiru aldiz, bai-

ta Altsasuko beste talderen batekin. Baina kide bezala ez; ka-lean, erronomia askotan jo izan dut, baina libreki.

Eta nola izan da talde baten sorreratik egotea?

Prozesu polita izan da. Taldekideak ez genuen elkar ezagutzen; batzuk bai, beste talde batzuetatik zetozelako eta aurretik ezagutzen zutelako elkar, baina beste batzuk ez. Orduan, oso prozesu polita izan da guztien artean musika egitea eta gutxi-naka ezagutzen joatea, ez bakarrik pertsonalki, baizik eta musikalki ere bai; eszenatokian nola mugitzen garen eta abar. Prozesu polita izan da guztien artean egitea eta ikastea.

Zer esan nahi du mariatxi talde bat izateak?

Hemen Nafarroan badugu tradizio handia mexikanak, rantxerak eta deribatuak entzuteko. Ohitura handia dugu. Gaur egun talde asko-asko daude, eta zenbait taldekide mariatxi musika taldeetan sartuta zeuden, eta beste talde bat egitea nahi zuten bere esentzia propioa emateko. Zerbait desberdina egin nahi zuten. Musika mexikanoa, Mexikotik datorren musika da, baina azkenen hemen gurea egiten dugu. Ez gara mexikarrak, saiatzen gara ahalik eta hobekien egiten, baina ez gara. Hango instrumentuak jotzen ditugu eta formazioa mantentzen saiatzen gara. Ez da mariatxi klasikoa; mariatxi klasikoan, adibidez, biolinak daude, eta guk dugu bat baina ez asko; akordeoia mariatxi klasikoan ez dago eta gure taldean badago, baita saxofonia ere, klasikoan ez dago eta guk sartu dugu. Mexiko oso handia da eta iparraldean horrelako instrumentuak sartzen dituzte, beste mexikar mota bat jotzen dute.

Beraz, Mexikoko musika estilo desberdinak jotzen dituzue?

Hori da pixka bat gure esentzia. Saiatzen gara oinarria mariatxi klasikoa izaten, baina buelta bat eman diogu beste instrumentu batzuk sartuz. Erritmoarekin jolasten dugu zerbait desberdina egiteko eta gure estiloa emateko. **Aurretik mariatxiak edo mexikar musika gustuko zenuen?**

"PUBLIKOA DA GARRANTZITSUENA; GUREKIN DISFRUTATZEA ETA ONGI PASATZEA"

Bai, bai. Mexikar musikaren zale amorratua naiz. Askok gustatzen zait; aukera izugarria izan zen.

Nola prestatzen zarete?

Askotan moldaketak egitea eskatzen ditugu eta horrekin joaten gara jolasten eta gure estiloa ematen. Guk ere ideiak ematen ditugu eta horrekin entseatzen dugu. Kontzertuetan ere asko ikasten dugu: zerk funtzionatzen duen, zer aldatu behar dugun... Horrekin hobetzen saiatzen gara.

Nolakoak dira zuen zuzenekoak?

Intentsuak. Errepertorio anitza eramaten saiatzen gara; abesti mantsoagoak daude, mugitua-goak, euskaraz eta gaztelaniaz abesten dugu, eta saiatzen gara publikoak eskatzen duena ematen. Momentuoro gaude begiratzeko zer behar dugun sartu, eta abestiren bat eskatzen badigute, hurrengo jotzeko prestatzen gara. Publikoa da garrantzitsuenak, haiek gurekin disfrutatzea eta ongi pasatzea.

Zertan desberdintzen zarete?

Saiatzen gara behintzat, ez dakit lortzen dugun, baina bidean ari gara behintzat. Talde mistoa da: lau neska eta lau mutil gaude taldean. Instrumentu konbinazio berezia sartu dugu: saxofonia, akordeoia... Mariatxi klasikoa eta beste maxikar estiloko batzuetako instrumentuak sartu ditugu, eta gero abesten bertsioak ere desberdinak dira; moldatzeko modua desberdina da.

Olaztiko festetan joko duzu. Urdu-ri? Zer espero duzu?

Oraindik ez dut asko pentsatu. Nik uste urduritasuna etorriko dela, baina gogotsu nago etxean jotzeko. Gainera, festetan. Ea olaztiarrek gure musika gustuko duten eta gurekin partekatzen duten. Abesteko eta dantzatzeko hortxe egongo gara. Ez da beste emanaldi bat izango. Berezia da. Urduritasuna hortik etorriko da ere. Etxean zaude eta dena ongi ateratzea nahi duzu. Berezia eta oso polita izango da. Lagunekin eta familiarekin mundu hori partekatzea polita da.

Zein da errepertoriotik zure abestirik gogokoena?

Ufa! Askok gustatzen zaizkit, moldaketa oso politak ditugu, baina agian animatu bat aukeratu behar badut: *Corrida de Mazatlan*. Jendea asko gustatzen zaio. **Festetako unetxorik gogokoena?** Agian arratsaldean herriko jendea elkartzen denean dantzaldiaren edo erromeriaren inguruan.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 18

LAKUNTZA Futbola.
Biltokiko futbol txapelketa.
16:00etan, *parkeko pistan.*

OLATZAGUTIA Erakustaldia.
Barandi tabernaren 10. urteurrena: errebote boteen erakustaldia Amaia Boots en eskutik.
20:00etan, *Barandi tabernan.*

LARUNBATA 19

LAKUNTZA Mendi irteera.
Zabalarteren mendi irteera: Kostaldera.
09:30ean, *plazan.*

OLATZAGUTIA Kontzertua.
Barandi tabernaren 10. urteurrena: The Karkamals taldearen kontzertua.
20:00etan, *Barandi tabernan.*

LAKUNTZA Jaialdia.
Tekno elkartasun jaialdia: Larreta eta Kale tekno. Biltokik antolatuta.
22:30ean, *Biltokin.*

IGANDEA 20

OLATZAGUTIA Urteurrena.
Barandi tabernaren 10. urteurrena.
11:00 Puzgarriak.
13:00 Chuchin Ibañez y los Charros taldearen kontzertua.
14:30 Paella jana.
20:00 Dos capacitados Jose de Luna Josete eta Edu Lukyrek in bakarrikzeta emanaldia.

ASTELEHENA 21

ETXARRI ARANATZ Zinema kalean.
Zinema kalean euskaraz: Museoaren zaindariak.

22:00etan, *patioan.*
ASTEARTEA 22

ETXARRI ARANATZ Tailerra.
Hegazti gautarrak Aizti Ingurumen Zerbitzuak eskainitako tailerra; Etxarri Kanpinaren udako ekintzen barruan.
Izena ematea: info@campingetxarri.com (12,9 euro).
21:30etik 23:30era, *kanpinean.*

ASTEAZKENA 23

IRURTZUN Udako zinema.
Saben Aquell filmaren emanaldia.
22:00etan, *Barazkigun.*

OSTEGUNA 24

EGIARRETA Liburu aurkezpena.
Haziak Zergatik eta nola egin zureak Autonomia ereiteko herria josteko



PIKUXAR

IRURTZUN Irurtzun Cocoli Aretaren Pirograbatuen erakusketa.
Ekainaren 16tik aurrera. Pikuxar tabernan.

Marc Baldaren liburuaren aurkezpena. Euskaraz.
19:00etan, *Itxasperrin.*

OSTIRALA 25

ALTSASU Kontzertua.

A toda madre mariachi taldearen kontzertua. Udako kultur programazioaren barruan.
19:30ean, *Foru plazan.*

IRURTZUN Antzerkia.
Venecia Mio Cuore Irurtzungo antzerki taldearen antzezlanaren emanaldia.
22:00etan, *Gernika plazan.*

HTXROCK

UZTAILAK 24 osteguna
17:00 Hasiera ekitaldia, Herriye! eszenatokian.
18:00 Les Testarudes, Hator Hator eszenatokian; Tapia eta Leturia, Auzolana! eszenatokian; Ibel Bedi, Herriye! eszenatokian.
19:05 Reincidentes, Etxera! eszenatokian; Naxker, Elkartasuna eszenatokian.
19:30 Zaunka, Herriye! eszenatokian.
20:10 Talko, Hator, Hator eszenatokian; Leihotikan, Auzolana! eszenatokian.
21:00 Olaia Inziarte, Herriye! eszenatokian.

21:15 Soziedad Alkoholika, Etxera! eszenatokian; Burutik eta Alaitz eta Maider, Elkartasuna eszenatokian.
22:30 Zea Mays Hator Hator eszenatokian; The Lio, Auzolana! eszenatokian; Trikidantz, Herriye! eszenatokian.
23:35 Juanxto Skalari & La Rude Band eta Set Skalariak. Etxera! eszenatokian; Maskak, Elkartasuna eszenatokian.
00:40 Skatu, Auzolana! eszenatokian.
00:55 Lendakaris Muertos, Hator Hator eszenatokian.
01:45 Nafarroa 1512, Elkartasuna eszenatokian.
01:55 Dupla, Etxera! eszenatokian.
02:50 Barniz, Auzolana! eszenatokian.

03:00 Sofokaos, Hator Hator eszenatokian.
03:55 Streetwise, Elkartasuna eszenatokian.
04:05 Maruxak, Etxera! eszenatokian.
05:00-06:30 DJ Trpaella.
UZTAILAK 25 ostirala
12:30 Gora Musika, Herriye! eszenatokian.
13:30 Azken ostiral nazionala eta mosaiko erraldoia. Erronka:1600 pertsona biltzea, Haurren Txokoa (futbol zelaia).
16:00 Xutik, Herriye! eszenatokian.
17:45 Hogei Berrero, Herriye! eszenatokian.
18:00 Koma, Hator Hator eszenatokian; Sukena, Auzolana! eszenatokian.

19:05 Bulego, Etxera! eszenatokian; Potato, Elkartasuna eszenatokian.
19:30 Afu, Herriye! eszenatokian.
20:10 Kaotiko, Hator Hator eszenatokian; Autobus Magikoa, Auzolana! eszenatokian.
21:15 Latzen, Etxera! eszenatokian; Nogen, Elkartasuna eszenatokian.
22:00 Delirium Tremens, Herriye! eszenatokian.
22:20 Deskontrol eta Arkada Social, Auzolana! eszenatokian.
22:30 ZETAK, Hator Hator eszenatokian.
23:35 Fillas de Cassandra, Elkartasuna eszenatokian.
23:45 Su Ta Gar, Etxera! eszenatokian.

00:00 Trikiteens, Herriye! eszenatokian.
00:40 Odei, Auzolana! eszenatokian.
01:00 Brigade Loco, Hator Hator eszenatokian.
01:45 Crim, Elkartasuna eszenatokian.
02:05 Kaleko Urgandak, Etxera! eszenatokian; DJ Bull eta DJ Jotatxo, Herriye! eszenatokian.
02:50 Añube, Auzolana! eszenatokian.
03:10 Bad Sound, Hator Hator eszenatokian.
03:55 Xiberoots, Elkartasuna eszenatokian.
04:15 La Txama eta Su Flakofonki, Etxera! eszenatokian.
05:00-06:30 DJ Plan B, Auzolana! eszenatokian.

Er **iti** aluminio PVC


Etxe zaharren berriztatze eta birgaitzea

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

ZORION AGURRAK



Markel
Zorionak Markel!!! 12 urte bete ttuzu ta daunekos oporretan zaude, denbora nehikue launekin biltzeko eta igerilekure fateko. Ongi pasa eta alkar ospatuko diau!! Muxu asko. Zuu famelikuek



UZTAILAK 21 - 25

10:00 Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta
10:15 Prentsaren azalak
10:20 Albisteak eta kirolak
10:30 Hizketan
11:05 Solasaldia Karrape eta Aralar irratiekin
14:00 Errepikapena



On line
guaixe.eus/irratia/zuzenean

IRAGARKI SAILKATUAK

IKASTAROA

Euskarazko oinarritzko ikastaroa Lakuntzan: Sakanako Mankomunitateak antolatuta, lastailetik abendura bitartean, goizez, baina, ordutegia molda daiteke. Informazio gehiago Sakanako Mankomunitatean.

GALDUTAKOAK

Arbizuko festetan, ekainaren 26an, gauean, Polar Pacer kirolerloju bat galdu zen plazan. Zerbait jakinez gero jarri harremanetan gurekin telefono honetan 626270446 (Iñigo). Mila esker

OPARITUTAKOAK

Bi arratoi-txakur kume oparitzen dira Etxarri Aranatzen: Interesa baduzu deitu 699 780 772 telefonora.

OHARRA

Arakil eguneko bazkarirako izen ematea zabalik: Uztailaren 25ean izango da eta eki-

taldia Egierretan egingo da. Bazkarirako txartelak udaltxean eros daitezke. Informazio gehiago info@arakil.net edo arakilkultura@gmail.com e-postara idatziz.

Euskara ikasleendako dirulaguntzak: Sakana Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak euskalduntzen edo alfabetatzen ari diren sakandarrei zuzenduta. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

Euskara hutsezko Udalekue-tara joango diren haur eta gazteendako dirulaguntzak: Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak bideratuta. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian eskura dezakezue.

Udan ere Mintzakide: Udan ere mintzataldeak osatuko ditu AEK-k, dohanik dira, animatu!!

Uharte Arakilgo Udalak herriko kultura, kirol eta gizarte entitateei zuzendutako dirulaguntza deialdia egin

du: Deialdiaren oinarriak www.uhartearakil.eus web orrian.

Etxarri Aranazko Udalak herriko entitateei zuzendutako dirulaguntzen deialdia egin du: kultur, kirol eta jendarte entitateei dirulaguntzak emateko deialdia zabaldu du. Informazio gehiago www.etxarriaranatz.eus web orrian.

Altsasuko Udalak irabazi asmorik gabeko entitateendako laguntzen deialdia zabaldu du: Deialdiaren oinarriak www.altsasu.net web orrian.

Etxarri Aranazko abesbatza txikian izena emateko epea zabalik: 6 -15 urte bitarteko haur eta gazteentzat.

Udan ere Mintzakide: Udan ere mintzataldeak osatuko ditu AEK-k, dohanik dira, animatu!!

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus



BAZTERRETIK

ZIORDIKO LIBURUTEGIA

Ziordiko liburutegiko hiru gomendio: udan irakurtzeko errazak, arinak eta interesgarriak

1. **Munduan barna. Herriak, ipuinak eta giza eskubideak/** Xabier Monasterio
Xabier Monasteriok idatzitako liburuan giza eskubideak errepasatzen dira, eta horren aitzakiarekin, liburuak aukera ematen digu munduko zenbait herri eta ipuin ezagutzeko. Liburua 14 ataletan dago banatua, eta atal bakoitzean giza eskubide bat aldarrikatzen da; hori guztia, ipuin eta iritzi artikulatu batekin. Laburbilduz, Monasteriok ederki azaltzen du giza eskubideek gaur egun duten egoera.

Liburu zeharo interesgarria, eta irakurri ahala, berehala ohartzen zara zein egoera txarrean dauden, jada, orain 75 urte Parisen sinatu ziren aipatutako eskubideak. Are gehiago, liburuak amaitzean, ondorio batera iristen zara:

Inoiz baino garrantzitsuagoak direla.

2. **PUNTO BOBO /** Itxaso Martin Zapirain
Familien tabuak azaleratzen dituen eleberria dugu *Punto bobo*. Egileak esan zuen moduan: “goxoa bezain gordina” da liburuak. Bertan emakumeen sufrimendua, osasun mentala eta familia islatzen dira; eta, idazlearen ustez, “esaten denak” bezainbeste garrantzia du “esaten ez denak”.

Familia bereko lau emakume dira protagonistak, eta bi denbora lerrotan kontatzen du istorioa Martinek; lehenengoa, narratzailearik gabeko elkarriketa luzea dugu, eta bigarrena, protagonistetako baten istorioa kontatzen da.

Izenburu bitxia du eleberriak: *Punto bobo*. Punto bobo puntua

egiten hasteko lehen urratsa izaten da, eta goiburua hori zeharo esanguratsua da irakurketa hobeki ulertzeko. Protagonista guztiek egiten dute puntua liburuan.
3. **SUPER PATATA/** Artur Laperla
Haurren artean izugarritzko arrakasta dute komiki horiek. Beraien umoreak zein originaltasunak kritika oso onak jaso dituzte; izan ere, liburu fresko eta dibertigarriak dira bilduma osatzen duten komiki guztiak. Maltzur doktore gaiztoak Supermax, ilerik apainena duen justiziaren defendatzailea, patata bihurtzen du. Baina ez da patata soil bat izango, Superpatata baizik. Ordutik, hainbat istorio dibertigarri biziko ditu gure irakurleen gozamenerako.

DUELA 25 URTE...



Arakilgo eguna

Santiago egunarekin, garilaren 25ean, arakildarrak Egierretako Itxasperi ermitaren inguruan elkartu ziren. Hirugarren urtea zen Arakilgo Eguna ospatu zena. Ermitan meza izan zen, Aralar-ko aingeruaren irudia bertan zela. Eguraldiak lagundu ez zuenez, aizkolariek egin beharreko erakustaldia bertan behera gelditu zen. Baina arakildarrak Etxarrego frontoian elkartu ziren bazkaltzera. Ondorengo mus txapelketako onenak Mikel Lazkoz eta Miguel Erbiti egierretarrak izan ziren. Briskakoak, berriz, Angela eta Angeles etxarrendarrak.

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
🐦 @Grupolrache
📘 Grupolrache
🌐 www.tanatoriosirache.es



Trontza txapeldunak. ANDRA MARI

HERRI KIROLAK Campos eta Lizarraga, trontza txapeldunak

San Fermin Herri Kirol Ferian bikain aritu dira kirolari sakan-darrak. Tartean, Andra Mari ikastolako Jokin Camposek eta Adur Lizarragak Nafarroako Kadete Mailako Trontza Txapelketa irabazi zuten, etzanda jarritako metro bateko enberrari 10 epai 6:08 minututan egin eta gero. Jesus eta Mikel Senar irakasleen irakaspenak ongi jarraitu zituzten. Jon Orella eta Aner Artieda bosgarren sailkatu ziren (7:29), eta Aizeti Agirre eta Malen Iza-girre zazpigarren (12:54).

Sakanako Harri Jasotze Eskolako Oskar Aguas Nafarroako Harri Jasotze eta Galdi Altzatze txapelduna izan zen, eta Maika Iraizoz Nafarroako Trontza eta Txinga txapeldunordea.



Irurtzuno pilotariak txapelekin eta Miguel Beraza koparekin, Nafarroako Federazioko ordezkariak alboan dituztela. UTZITAKOA

Irurtzun pilota klubak historia egin du

PILOTA Irurtzunek lehenengo aldiz irabazi du Nafarroako Herrien Arteko Txapelketa, eta denboraldi zoragarriari ginga jarri dio. Miguel Berazak gidatzen duen taldeak Euskal Herriko Herrien Artekoari uko egin dio "oso justu, bermerik gabe" iritsi delako

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN

Azkenean, denboraldiari "bikaina" nota jarri dio Irurtzun pilota klubeko presidente Miguel Berazak, klubak historia egin baitu. Lehenengoz Nafarroako Herrien Arteko Txapelketa irabazi du, meritu handiko lorpena, uztailaren 13an sanferminetako giroan murgilduta zegoen Labriten Leitza mendean hartuta.

Jubenilen zorioneko berdinketa

Goiza ez zen ongi hasi, kadette-tan Baleztena-Zubillagak (Leitza) 22-11 hartu baitzituzten mendean Laso eta Razkin (Irurtzun). Jubenilena erortzeko modukoa izan zen. Okiñena-Huarte (Irurtzun) 8-17 aurreratu ziren, baina Sagastibeltza-Alkortak (Leitza) partida irauli, eta 21-18 jarri ziren aurretik. "Okiñenak eta Huartek

animoak baretzen jakin zuten, eta 21-22 irabazita, finala berdindu genuen" dio Berazak.

Beraz, seniorren partidak erabaki zuen txapela. Ongayk eta Azpirozek (Irurtzun), maisuki, 2-22 irabazi zieten Txoperena-Goikoetxeari (Leitza). "Tanto guztiak gure aldera erortzen ziren, eta leitzarrak partidatik atera ziren. Gurek partida itzela egin zuten".

Sekulako aitortza

Irurtzunek lehenengoz Nafarroako Herrien Arteko Txapelketa irabazi izana "sekulakoa" da klubarendako. "Duela 43 urte Irurtzuno jubenila nintzen, eta Lesakaren kontra finalerdia galdu genuen. Duela 20 urte finala jokatu genuen, baina Lizarraren kontra galdu. 20 urteren ondoren trofeo hau izatea oso handia da. Klub batendako oso garrantzitsua da Herrien Artekoa irabaztea; herriarendako aitortza handia da, eta klubetik pasatu diren pilotari guztiendako ere bai".

Irurtzun Herrien Arteko txapeldunen klubean sartu da, Altsasu, Oroz Betelu, Leitza, Larraun, Bera, Goizueta, Lizarra, Iruñea, Uharte Arakil, Baztan, Uharte Iruñea eta Donezteberek batera.

Euskal Herrikoari uko

Nafarroako Herrien Artekoa irabaztearekin batera, Euskal Herriko Herrien Arteko Txapelketako finalerdietara sailkatu zen Irurtzun. Asteartean Markina-Xemeinen kontra jokatzekoak ziren, baina, azkenean, uko egin zioten. "Gure pilotariak oso justu iritsi dira azken txanpara, lehertuta daude. Irurtzun beharrean Sakana izenarekin lehiatzea proposatu genuen, beste pilotariren bat gurekin aritzeko, baina ezinezkoa izan da. Pena handiz, baina Euskal Herrikoari uko egin behar izan diogu, bermerik gabe ezin ginelako aritu".

Olatz Azazeta, Goierriko Bi Handien erregina

MENDI LASTERKETAK Altsasuarrak aurrean egin zituen Beasaingo ultrako 90 km-ak, eta erraz gailendu zen

M.B.G. ALTSASU

Olatz Azazeta Pelaezek Goierriko Bi Handietan ez zuen areririk izan (13:48:53). "Oso pozik nago egin nuen lasterketarengatik. Azkenean, amesten duzu, baina ez duzu inoiz horrelakorik espero. Oso polita izan zen lehendabiziko postu hori lortzea eta lasterketa guztian lehena joatea. Horrek lasaitasuna eman zidan" dio Olatz Azazeta txapeldunak.

Olatz Azazeta azkar atera zen hasieratik, "hori izan zen estrategia, lehen hiruzpalau orduetan azkar joatea, egunez ahalik eta

km gehien egiteko". Alerta meteorologikoengatik larunbateko 19:00etara atzeratu zuten irteera. "Beraz, egunez atera ginen, gauean izan beharrean. Horrek eragin handia izan zuen, oso lasterketa azkarra izan zelako lehendabiziko momentutik". Hala ere, "oso ongi" sentitu zen Azazeta. "Horrek esan nahi du entrenamenduak oso ongi doazela".

Gauetz egin zuten ibilbide gehiena, tartean zatirik teknikoan, Aizkorriko eta Andraitzeko jaitsierak. "Horrek pila bat moteldu zuen lasterketa. Zentzu horretan,



Olatz Azazeta Pelaez oso kontentu iritsi zen helmugara. GOIERRIKO HITZA

amorrua ematen dit denbora ez zelako nik nahiko nukeena izan, baina uste dut antolakuntzak erabaki egokia hartu zuela, irteera atzeratzearena".

Azazeta "oso eskertuta" dago inguruko guztiarekin. "Familiari,

lagunei, bikoteari, animatzen zegoen jende guztiari eta boluntarioei eta antolakuntzakoei eskertuta, atzean lan handia dagoelako. Eskerrik asko, Goierriko Bi Handiak egitea etxean bezala sentitzea delako".

Sakandarrak Beasainen

Ehunmilak ultra trailean (171 km, 10.500 m+) Eugeni Etxarte lehen sakandarra izan zen, helmugan 37. postuan (21:15:08). Goierriko Bi Handietan (90 km, 5.500 m+), Olatz Azazeta txapelduna izan zen (13:48:53), eta Gaizka Angulo 30. (13:40:44). Marimurumendi mendi maratoian (42,195 km, 2.300 m+) Ainara Galarza 14. emakumea izan zen (5:19:44), eta Aitor Salinas lehen gizon sakandarra, 195. (5:55:12).

Autogobernua indartzearekin, funtsezkoa dena hobetzen da; kalitatezko zerbitzu publikoak, herritarrentzako benetako ongizatea dakartenak.

Autogobernu eraginkorra gizarte-kohesiorako faktore gisa; erabakiak hemendik hartzen direnean, kudeaketa bizkorragoa eraginkorragoa eta Nafarroako errealitatera egokitu da.

Nafarroako Parlamentuaren %90eak bermatu du eskumenen berrintegrazio hau: hazten jarraitzeko adostasun demokratikoa.

Nafarroak hazten jarraituko du eskumen berriekin: ikasketa-bekak, Ebroko autobidea (AP-68) eta I+G+B jada Estatuarekin negoziatzen ari dira.

Nafarroa HAZI egiten da

hemendik erabakitzen dugunean

Foru Komunitateak, 64 urte geroago, trafikoaren kudeaketa berreskuratu du



Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



autogobernua.nafarroa.eus

informazio gehiago



NAVARRA ‡ NAFARROA

Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua

Maidar Betelu Ganboa DORRAO

Aiora Resano Larraioz dorrobarrak Sakana Patin taldeko irristalari fin eta trebea da. Aurten Nafarroako Pista Txapelketan urrezko bi domina eta zilarrezko bat lortu ditu eta berriki Antoniuttin jokaturako Espainiako Zirkuituko Txapelketan txapel-dunordea izan zen.

Noiz hasi zinen irristaketan?

Orain 12 urte ditut eta kimuen mailan lehiatzen naiz. Duela hiru urte pasa hasi nintzen irristaketan, Etxarri Aranazko taldean, eta gero Altsasura joan nintzen, Sakana Patin lehiaketa taldera. **Irristaketara ongi pasatzera zoaz ala lehiatzera?**

Ongi pasatzera noa, baina oso lehiakorra naiz, eta emaitza onak izatea nahiago (kar-kar).

Aurten Nafarroako Pista txapelketan 1.500 m linean eta 3.000 m puntuazioan Nafarroako Txapel-duna izan zinen, eta 300 m esprintean bigarrena. Eta lan ona egin zenuen Paiportan jokaturako Espainiako Pista Txapelketan.

Bosgarren izan nintzen 1.500 m linean eta 3.000 m puntuazioan. Oso ongi.

Ondoren zirkuitu txapelketa iritsi zen. Zer moduz joan zaizu?

Nafarroako Zirkuitu Txapelketan ez zen dominarik egon. Txapelketara ez nintzen ongi ailegatu. Gainera, Antoniuttin orain arte ez nintzen oso ongi ibiltzen. Jada zirkuituari beldurra kentzen hasi naiz, baina kosta egin zitzaidan.

Zeri zenion beldurra?

Gehienbat jaitsierari, abiadura gehiago hartzen delako. Jendearen atzean joatea, beheko bihurtune itxi hori heltzea... halakoak. **Baina Antoniutti zirkuituari tamaina hartu diozu, ekainaren 21ean eta 22an bertan jokaturako Espainiako Zirkuituko Txapelketan Espainiako txapel-dunordea izan baitzinen, meritu handiz.**

Bai, asko entrenatu genuen, eta bigarren izan nintzen 430 m esprintean. Oso pozik nago. Egia esan, hobeki doazkit distantzia luzeak, baina ez zitzaizkidan nik nahi bezain ongi atera. Ongi aritu nintzen luzeetan, baina hirugarren edo laugarren postua lortu nahi nuen, eta ezinezkoa izan zen. Dena den, egindakoarekin oso pozik nago.

Sakana Patin taldeko Noa Flores, Nahia Zamarron, Eneritz Fresneda eta Elaia Agirre irristalariekin batera 15 urtez azpiko estatuko Liga Nazionalen lehiatzen ari zarete.

"Sakanan pista beharrezkoa da. Ezin gara behar bezala entrenatu"

AIORA RESANO LARRAIOZ SAKANA PATIN TALDEKO IRRISTALARIA

IRRISTAKETA Irristalari dorrobarrak Espainiako Zirkuitu Txapelketako 430 m esprintean zilarrezko domina lortu zuen. 15 urtez azpiko Liga Nazionala da hurrengo helburua



Aiora Resano Larraioz oso ongi aritu zen Espainiako Zirkuitu Txapelketan. UTZITAKOA

Iaz laugarren sailkatu zineten, eta aurten, momentuz, liderrak zarete. Bai, Madrilen eta Gijonen jokaturako bi jardunaldien ondoren lider jarri ginen eta oso pozik gaude. Liga Nazionalen taldeka jokatzeko dugu, guztien lana batu egiten da. Probetara asteburu pasa joaten gara eta oso gustura egoten gara, ongi pasatzen dugu. **Maila indibidualen lortutako emaitzak ala Liga Nazionalen taldean lortutakoak. Zeintzuk hobe?**

Aurten proba indibidualen ilusio gehiago nuen, iaz ez nintzelako sailkatu eta aurten probatu nahi nuelako. Baina 15 urtez azpiko Liga Nazionala oso ongi dago. Taldeka aritzeak grazia handia du. Eneritz, Nahia eta Elaia helduagoak direnez, bana-ka lehiatzen garenean ez dugu elkarrekin korritzen. Liga Nazionalen, aldiz, elkarrekin aritzen gara.

Liga Nazionalen hirugarren eta azken proba irailaren 13an eta 14an jokaturako da A Coruña. Udan nola prestatuko zarete?

Frontoian ezin ditugu mugimendu batzuk landu, teknika hartzeko ez baita toki ona. Abiadura hartu bezain azkar frenatu behar

"IRRISTALARIAK NOLA DATOZEN IKUSI, NOIZ SARTU, NON KOKATU, DENBORA EZ GALDU... GAUZA ASKO DIRA"

izaten da frontoietan, eta ezin gara behar bezala entrenatu. Iruñeko pista itxita daudenez, kaleko zirkuituak bilatzen ditugu, eta orain Aguraingo indus-trialdean entrenatzen gara. Dugun maila ez galtzea, hori da garrantzitsua, eta bizikleta estatikoan aritu, fondoan lantzeko. Aurrerago sendo entrenatzen hasiko gara, Galiziarako prestatzeko. Sakanan pista ez izatea pena handia da.

Irristalarien aspaldiko eskakizuna da Sakanan pista izatea.

Bai, guztiz beharrezkoa da. As-tero Iruñera joan beharra dugu, bestela ez baitugu behar bezala entrenatzeko aukerarik. Horregatik jende askok Iruñeko taldeetara joaten bukatzen du. Sakanan pista bat izanda, ez genuke kanpora joan behar izango, eta gure taldean, Sakana Patinen, jarraitu ahalko genuke. Beste maila batean aritzeko egun taldez aldatzera ia behartuta gaude, eta horren giro polita dugu Sakana Patinen... pena handia ematen du pentsatzeak agian aurrerago mugitu behar izango dugula.

Zer da irristaketa zure bizitzan?

Niretako irristaketa, oraintxe bertan, garrantzitsua da. Oso gustuko dut. Palan, areto futbol-lean eta irristaketan aritu naiz aurten, baina bukaeran irristaketari eman nion lehentasuna. Irri-ristaketak lagun berriak egiteko aukera eman dit, ez bakarrik Sakanakoak. Lagunak, Txantrea, San Juan, Artika eta Amaia klubeko irristalariekin harreman polita dugu. Izaro nire ahizpa txikia ere irristaketan ibiltzen da. Izaro Espainiako Zirkuitu Txapelketan lehiatu zen, mini-winners mailan, baita Noa Flores kimua eta Nahia Zamarron eta Elaia Agirre haurrak ere. Oso ongi aritu ziren.

Bi ahizpok ez duzue aitaren zale-tasuna, aizkorarena, hartu.

Aizkora probatu nuen, baina utzi nuen. Aitak irristaketa entrena-menduetan asko laguntzen dit.

Non gordetzen dituzu orain arte lortutako dominak?

Apal batean ditut jarrita. Auke-ra aprobetxatu nahiko nuke esateko oso eskertuta nagoela nire taldekideekin eta Oscar Zamarron, Unai Villalobos eta Maddi Goya entrenatzaileekin ere bai. Asko lagundu naute. Beti prest daude animatzeko, prestaketan laguntzeko... Eskerrak eman nahi dizkiet.

Herri txikietako festetako DJak

Boletus Rumberus izena Sakanako festetako egitarauetan ohikoa izaten da. Xabier Bengoetxea eta Unai Mujika ziordiarrek osatzen duten disko jartzaile taldea da. "Denetariko" musika jartzen dute; herrira, adinera eta egoerara moldatzen dira

Erkuden Ruiz Barroso ZIORDIA

Gaur egun disko jartzaileen munduan mota "desberdinak" daudela esan dute Xabier Bengoetxea Ijurrak eta Unai Mujika Mateok. Ziordiarrek Boletus Rumberus DJ osatzen dute: "Gu gara herri txikietako festetako DJak". 2022ko abenduan hasi ziren "bromagatik" musika jartzen eta pixkanaka "beste herri batzuetatik" deitzen hasi ziren. Orain Sakanako festa ia guztietako egitarauetan daude.

"Herrian Santa Luzia eguna ospatzen zen, baina gaztetxean ez zegoen festa hori egiteko ohiturarik; duela pare bat urte festa hori ospatzea pentsatu genuen eta diru gutxi gurenez esan genuen: 'jarriko gara gu DJ moduan?'", azaldu du Bengoetxeak. "Gaztetxean zer edo zer egiteagatik pentsatu genuen; herrian baiezkoa eman zuten", gaineratu du Mujikak. Ospakizun egun horretan "festa egiteagatik" hasi ziren, eta laster ondoko herritik deitu zieten, Olaztitik, "batetik hasi, gero bestea...". Instagrameko kontua irekitzea mugarri izan zen.

Nola da festetako DJa izatea? "Giroaren arabera da; zer jende dagoen, adina eta abar kon tuan hartzen dugu. Lizarragara joaten bagara badakigu mexikar asko jarri behar ditugula, eta Altsasun beste musika mota bat da", esan du Mujikak. Oholtzatik jendeak "zer nahi duen" ikusi behar dute, "Sakanan gutxi gorabehera elkar ezagutzen dugunez badakigu zer gustatzen zaion bakoitzari". Hasieran ezjakintasun gehiagoarekin joaten zirela gaineratu du Bengoetxeak, "baina orain bigarren uda da eta gutxi gorabehera badakigu herri bakoitzean eta dagoen pertsonaren arabera zer gusta-



Boletus Rumberus, Unai Mujika eta Xabier Bengoetxea, emanaldi batean. UTZITAKOA

tzen zaien". Ibarreko herri batetik bestera aldaketa "nabartzen" dela esan dute. Beste zenbait elementu izan behar dituzte kontuan, esaterako, emanaldiaren ordua edo tokia: "ez da berdina plaza batean edo taberna batean egon, edo arratsaldean edo gauean".

Zopilotes Txirrius taldearen abesti batekin hasten da beti Boletus Rumberus. "Horrekin hasi ginen eta horrekin jarraitzen dugu". Lehenengo bi edo hiru kantak saio guztietan berberak dira, eta emanaldiaren arabera aldatzen dira. "Momentuan erabakitzen dugu zer jarri. Agian badago tarte bat ez dakiguna zer jarri, baina orduan norbait dator eskatzera", esan du Bengoetxeak. Gerta daiteke abesti horrek momentu horretan bat ez egitea, "eta ez dugu jartzen; edo abestia esatea eta pentsatzea: ona!".

Aniztasuna

"DJa izan behar ginela formalizatu genuenean mahai bat erosi genuen eta aplikazio horretarako kantak deskargatuta izan behar genituen", azaldu du Mujikak. Gaztetxeko ordenagailuan zituzten abestiekin nahastuko lituzkete, baina "beste arazo bat" sortu zen, Bengoetxeak azaldu bezala: "Gaztetxean ordenagailu bat zegoen eta bertan abesti pila bat zeuden, baina ezabatu zituzten eta den-dena deskargatu behar izan genituen". Abesti zerrenda handia izan arren, gerta daiteke tokiren batean abesti bat eskatu eta ez izatea, eta orduan kobertura izan behar dute kontuan. DJ set-a ordenagailu eta soinu mahai batez osatuta dago, eta lekuren batean ekipoa ere eraman behar dutela esaten badiete, "Lizarragako bi anaik badute horrelako ekipa bat". Abesti batetik bestera pasatzeko nahasketak egiten dituzte, baina oraindik mahaiak ematen dituen aukera guztiak ez dituztela probatu esan dute.

Boletus Rumberus DJen berezitasuna "denetarik" jartzen dutela da. Mujika: "Bioi edozein kanta mota gustatzen zaigu eta jendeare ere gustatzen zaio. Hasiera momentuetan agian ez dakigu zer jarri, baina bukaeran jendea oso pozik egoten da". Gaur egun DJak estilo bakar batean nabarmentzen direla azaldu du Bengoetxeak: "Edo reggaetia edo tekno edo denok ezagutzen ditugun abestiak.

Baina guk denetarik jartzen dugu; eskatzen digutena".

Disko jartzaileek azaldu dutenez Sakanako herriaren arabera musika estilo bat edo beste entzuten da, betiere biltzen den jendearen arabera dela kontuan hartuta. Zer entzuten da, beraz, Sakanan? "Irurtzunen gehiago da hirian bezala. Barazkigunen egon ginen eta egongo gara (gaur, uztailak 18, 23:30etik aurrera), eta lehenengo urtean ez genekien oso ongi zer jarri eta betikoa jarri genuen". Gaur egungo kanta "komertzialagoak" jarri dituztela azaldu dute. "Lizarragako eta horrelako herri txikietan desberdina da". Iturmendin ere antzekoa dela esan dute (atzo, uztailak 17, egon ziren). Altsasun "flamenko, rumba eta abar" eskatzen dituztela esan dute, "gauzak diren bezala", baita rocka ere eskatzen dute; "Baina, denetarik. Gehienetan gaztetxean egongo gara, eta rock nahikotxo eskatzen dute". Ziordian ere denetarik jartzen dute, "agian abesti zaharrak gehiago; reggaetoiaren barruan 2010ko hamarkadakoa". Baita lehengo rocka ere jartzen dute Ziordian, "50 eta 60 urteko jendeare gustatzen zaiona".

Aurten udako abestirik ez dagoela esan dute. "Batzuk *La Potra Salvaje* abestiarekin jarraitzen dute". Gaur egun ez dute inolaz ere jartzen. "Adin guztietako jendeak; txikienetik helduenetara". Lola Indigoren Mojaita abestiarekin jendea "mugitzen" dela esan dute, baina momentuz ezin dute udako abestirik dagoenik esan.

Boletus Rumberus parranda egiteko modu bat bihurtu da gazte ziordiarrendako. Mujika: "Toki batera joaten gara, gustuko ditugun kantak jartzen ditugu...". Elkarrekin parranda egiten dutela gaineratu du Bengoetxeak. Festa bat aukeratzekotan Baztango Berroetarekin gelditzen dira; lagunekin joan ziren eta oso ongi hartu zituzten. "Esan beharra dago, herria zenbat eta txikiago, orduan eta juerga hobe". Etxean ere oso gustura egoten dira.

"ESAN BEHARRA DAGO: HERRIA ZENBAT ETA TXIKIAGO, PARRANDA ORDUAN ETA HOBEA"



Iker Uribe eta Asisko Urmeneta horma irudiaren hasieran.

"Gauza koloretsua eta indartsua nahi genuen"

'Ongi errotik' Etxarri Aranazko herri mugimenduaren "ongi etorri" horma irudia sortzen ari dira uztailaren 14tik Asisko Urmeneta eta Iker Uribe marrazkilariak herriko sarreran. Dena ongi, datorren astean amaituko dute

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI A.

1 Nork sortu du horma irudia?

Asisko. Netflixeko serie baterako emanen luke. Nirekin harremanetan jarri ziren, eta harremanetan jarriak ziren Ike-
rrekin ere. Hori delikatuia izan ahal da, bi egileen arteko lana; orduan, harremanetan jarri ginen marrazkilariok. Bertsio laburra.

Iker. Herri mugimendutik nirekin harremanetan jarri ziren. Gai asko sartu nahi zituzten, kondentsatu, eta pentsatu nuen oso lan potentea zela sintesi hori egitea. Orduan, Asiskorekin harremanetan jarri ziren eta askoz errazago izan da dena.

2 Nolakoa izan da irudia sortzeko prozesua?

A. Norbaitek marrazki bat eskatzen duenean konstituzio bat idaztea nahi izaten du; baina marrazki bat marrazki bat da. Nola sartu borroka sektorial guztiak? Adinari esker sinpletzen ari gara. Iker oso ona da mural-gintzan eta ni baino aise hobea koloregintzan. Lehenengo momentutik lau eskuko kontzertu bat izan da.

I. Marrazkia Asiskok egin zuen. Oso irudi potentea da. Polita geldituko da eta sintesi lan hori egin du; sinplea da, baina ez da erraza sinpletasun hori bilatzea.

3 Zer kontatzen du irudiak?

A. Ez dakit nork erraten zuen ekintza batek behar duela bere burua esplikat. Gero komunikatu behar bada zergatik den ekintza hori, gaizki. Nahiko nuke jendeak ikusi eta ea zer ikusten duen. Abiapuntua ongi etorriaren inguruan da, eta buelta gehiago eman eta *ongi errotik* jarri dugu; hau ez da orube huts bat, ez da *terra nullius* (inorena ez den lurraldea). Ez, hemen herri bat dago eta badu bere kultura politika eta bere harrotasuna. Badu zer emanik munduari. Gauza indartsua eta koloretsua nahi genuen; osasuna eta askatasuna.

4 Horrelako neurri handiko horma irudi gehiago egin dituzue?

I. Euskal Herrian badugu ezaugarri berezi bat: frontoiz josita dago. Fronto asko tokatu zait margotzea.

A. Niretako ona da. Gure lana izaten da xehetasuna, biñeta, tamaina txikiko gauzak ia arnasarik ez dugula hartzen egiten dugun bitartean. Orduan, metroak eta metroak izatea niretako plazera da. Gainera, egin berri duan lagun batekin aritzea.

5 Lehenengo aldia da elkarrekin lan egiten duzuela, ezta?

I. Pistak eman nizekin nirekin kontaktatzeko.

A. Ogi apur batzuk bota zituen duela hilabete batzuk; azkenean erori naiz bere zepoan. Oso gustura hartu dut.

6 Nola egiten ari zarete horma irudia?

I. Uztailaren 14an hasi gara zirriborro batzuk egiten eta gero marrazkia enkajatu dugu. Behin marrazkia eginda kolorea sartzen hasiko gara.

7 Nola gidatzen zarete horman?

I. Kuadríkula teknologikoa da; marrazkiak egiten ditugu eta gero argazkia ateratzen diogu eta transparentziaren bidez enkajatzten dugu. Marrazki oso handiak direnean asko errazten du.

8 Hormaren ezaugarriak onak dira?

A. Ez gara kexatuko. Eguraldia ere momentuz espezial ari da.

9 Zer izango da zailena?

A. Ez dakit puntu suizida bat dudalako izango den, baina ez dut zailtasunik inoiz ikusten. Ideia badugu, materiala ere bai, makina... Artea beste diskurtsoak iristen ez diren lekuetara iristen da, eta hau kasu bat da. Herritarrendako geldituko da; niretako ohore bat da, pribilegio bat, hona etortzea eta bion artean hau sortzea. Horregatik ahalik eta hobe-
kien egingo dugu.

10 Zenbat iraungo du?

I. Oso erlatiboa izaten da. Baldintza askoren araberakoa. Hau oso ongi kokatuta dago, eta nik uste asko mantenduko dela.

11 Mantenimendua beharko du?

I. Kasu batzuetan nik egin izan diet, baina normalean ez. Agian jubilazioan deituko didate...

A. Jendearekin batera zahartu behar dira. Kolorea galtzen hasiko da, gainetik margotuko dute... Materiala ona da eta urte batzuetarako hemen izanen da.

BAKAIKUKO BARNETEGIA

Zuekin 35 urtez



Gabriel Aresti
euskaltegia

kafe antzokia
www.kafeantzokia.net

Elkarrekin
Gazteola



BI-96.0-FM
Bilbo Herria Irratzea

Bakaikuko
Etxea

Erroa
argitaletxea

Gazteola
Herria eta Gazteola

ja
GABRIEL ARESTI
KATALANERAKO

